

ZIENTZIA BITXIKERIAK

Deskribapena: “Zientzia kaiera” webgunea ageri da lehenengo eta ondoren, txinatar bat izututa atzetik dinosauro bat duela segika.

Kike (off ahotsa): Zientziari buruzko hainbat pasadizo eta bitxikeriaren berri izan nahi baduzue, gune aproposak dituzue Juan Ignaciok aipaturikoak eta bitxikeriez ari garela, dinosauroak aspaldi iraungi zirela denok dakizue eta eskerrak, bestela ezusteko ederrak hartuko genituzke!

Deskribapena: Kike Euskal Herriko Unibertsitate kanpoan ageri da zutik.

Kike: “Seguruenik denok ez duzue izango euskal dinosauroen berri baina izan badira, hor duzue esate baterako *Lirainousaurus Astibiae Titanosauroa* Gasteiztik hogeita bat kilometrotara dagoen Lainoko aztarnategietan aurkitutakoa.”

Deskribapena: *Lirainousaurus*en marrazki bat ageri da.

Kike (off ahotsa): Nonbait paleontologoei liraina iruditu zitzairen eta *Lirainousaurus* izenarekin bataiatu zuten.

Deskribapena: Panda hartza bat jaten agertzen da.

Kike (off ahotsa): Ezin esan Pandak euskaldunak direnik.

Kike: “Baina bai Pandak mendebaldean ezagutzera eman zituen gizona!”

Deskribapena: Armand David-en marrazkia ageri da.

Kike (off ahotsa): Armand David Ezpeletan jaiotako zoologo eta botanikaria.